



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko irailaren 6a

101. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—11-24/MOC-00091. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita elkarrizketa-bide bat ezar dezan, alternatiba bat aurkitu dakion Kantauri-Mediterraneo trenbide-korridorearen ibilbideari, Iruñetik euskal Y-aren loturaraino doan zatian. Lurralde Kohesiorako Batzordeak ezetsi du (4. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- 11-24/PES-00328. Galdera, Adimen Artifizialaren Zentrora bititari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (5. or.).
- 11-24/PES-00329. Galdera, Atarrabian San Andres paper-fabrikatiko usain txarrak nabaritzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (6. or.).
- 11-24/PES-00330. Galdera, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (7. or.).
- 11-24/PES-00331. Galdera, Autonomia Pertsonala Sustatzeko Zerbitzuaren finantzaketari buruzko aurreikuspenei eta epeei buruzkoa. Isabel Aramburu Bergua andreak egin du (7. or.).
- 11-24/PES-00332. Galdera, Alaitz BHIn batxilergo-lerro bat kentzeari buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (8. or.).
- 11-24/PES-00333. Galdera, Mugairin Elizondo Lanbide Eskola berria eraikitzeako obraren lizitazioari buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (9. or.).
- 11-24/PES-00334. Galdera, Etxabakoizko Nuestra Señora de Roncesvalles haur-eskolan 2024-2025 ikasturterako izandako matrikulazioei buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (9. or.).
- 11-24/PES-00335. Galdera, 2024-2025 ikasturtetik aurrera Ezpeleta Jauregia erabiltzeari buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (10. or.).
- 11-24/PES-00336. Galdera, Aibarko haur-eskolarako aurrematrikulazioei buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (10. or.).

- 11-24/PES-00337. Galdera, familiei lana eta familia bateragarri egitearekin laguntzeko neurriei eta haur-pobreziaren aurkako borrokari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (11. or.).
- 11-24/PES-00338. Galdera, joko-enpresei buruzkoa. Arantzazu Izurdiaga Osinaga andreak egin du (11. or.).
- 11-24/PES-00339. Galdera, behar bezala frogaturiko hiru komunikazio-ahaleginak betetzen direla bermatzeko neurriei buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (12. or.).
- 11-24/PES-00341. Galdera, Vianako Mondelez enpresarentzako laguntza ekonomikoei eta onura fiskalei buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (12. or.).
- 11-24/PES-00343. Galdera, Antzingo eskolari buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (13. or.).
- 11-24/PES-00344. Galdera, interkontsulta baten ondotiko hitzordu presentzialei buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (13. or.).
- 11-24/PES-00345. Galdera, Nafarroako Gobernuak Bidean ente instrumental deklaratzeari buruz 2023ko azaroaren 6ko Administrazio Kontseiluan aipatu ziren data aurreikusiei buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (14. or.).
- 11-24/PES-00346. Galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitaletik kanpo eginiko analisisiei buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (15. or.).
- 11-24/PES-00347. Galdera, bakarrik dauden adingabe atzerritarrei buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (15. or.).
- 11-24/PES-00348. Galdera, Nafarroako egoitzen hitzarmenaren egoerari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (16. or.).
- 11-24/PES-00349. Galdera, Nafarroan desgaitasunaren alorrean dauden itxaron-zerrendeiei buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (16. or.).
- 11-24/PES-00350. Galdera, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren finantza-egoerari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (17. or.).
- 11-24/PES-00351. Galdera, Europako NG funtsekin (SEM) finantzaturiko zenbait jarduketa bertan behera utzi izanari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (17. or.).
- 11-24/PES-00352. Galdera, babesgabetasun-egoeran zegoen familia batek kalean lo egin beharra ekiditeko ekintzei buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (18. or.).
- 11-24/PES-00353. Galdera, Foruzaingoko Informazio Dibisioaren txostenetan delituak polizia-kidegoaren arabera banatzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (19. or.).
- 11-24/PES-00354. Galdera, funts publikoekin finantzaturiko ikastetxeetan eduki politikodun pankartak kentzeko protokoloari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (20. or.).
- 11-24/PES-00355. Galdera, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko 5/2018 Foru Legea, maiatzaren 17koa, betetze aldera Nafarroako Gobernuak egin dituen urratsei buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (20. or.).
- 11-24/PES-00356. Galdera, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren egoerari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (21. or.).
- 11-24/PES-00357. Galdera, errentako etxebizitza publikoko parkeko etxebizitza bat emateko batez besteko itxarote-denborari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (22. or.).
- 11-24/PES-00358. Galdera, Nafarroan etxebizitza babestu bat emateko itxaron behar den batez besteko denborari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (22. or.).
- 11-24/PES-00359. Galdera, osasun arloko langileen lanbide-karreraren sistema ezartzen duen foru legearen zirriborroari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (23. or.).
- 11-24/PES-00360. Galdera, erosketa- eta lizitazio-teknikariaren lanposturako kontratazio mugagaberako tasa berariazko bat onesteari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (23. or.).
- 11-24/PES-00361. Galdera, 2024ko maiatzaren 24an egin zen Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Batzordean Lucero jaunak jaulki zituen hitzei buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (24. or.).
- 11-24/PES-00362. Galdera, errentako etxebizitzak sustatzeko sozietate berri bat eratzeko prozesuari buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (25. or.).
- 11-24/PES-00363. Galdera, etxebizitzak zaharberritzeko bideratuta dauden dirulaguntzetako Europako funtsei buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (25. or.).

- 11-24/PES-00364. Galdera, "Nafarroako gazteriari buruzko azterlan monografikoa" delakorako kontratua-  
ren gainekoa. Ángel Ansa Echeagaray jaunak egin du (26. or.).
- 11-24/PES-00365. Galdera, "Estudios Melitón" enpresarekiko epaiaren betearazpenari buruzkoa. Juan  
Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (27).

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**11-24/MOC-00091. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-  
tzen baita elkarrizketa-bide bat ezar dezan, alternatiba bat aurkitu  
dakion Kantauri-Mediterraneo trenbide-korridorearen ibilbideari,  
Iruñetik euskal Y-aren loturaraino doan zatian**

*LURRALDE KOHESIORAKO BATZORDEAK EZETSI DU*

Lurralde Kohesiorako Batzordeak, 2024ko irailaren 3an egindako bilkuran, ezetsi du EH Bildu Nafarroa eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita elkarrizketa-bide bat ezar dezan, alternatiba bat aurkitu dakion Kantauri-Mediterraneo trenbi-

de-korridorearen ibilbideari, Iruñetik euskal Y-aren loturaraino doan zatian. Mozioa 2024ko ekainaren 21eko 89. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko irailaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**11-24/PES-00328. Galdera, Adimen Artifizialaren Zentrorako bisitari buruzkoa****ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, Adimen Artifizialaren Zentrorako bisitari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

Gure talde parlamentariok eskatu zuen bisita egin dadin IRIS-Nafarroako Berrikuntza Digitalaren Polora eta NAIR Center-Nafarroako Adimen Artifizialaren arloko Ikerketarako Zentroran, egiten ari diren lana bertatik bertara ezagutzeko (11-24/VST-00039). Hasiera batean, egutegiaren arabera, bisita hori 2024ko irailaren 5ean egiteko zen, 09:30ean.

Egutegitik kendu da, ordea, eta galdetu dugunean zer dela-eta kendu den, adierazi zaigu IRIS-

Nafarroako Berrikuntza Digitalaren Poloaren koordinatzaile Ion Arrizabalaga Garde jaunak honako hau adierazi diola Nafarroako Parlamentuari: haien ustez, "segurtasunagatik, hobe da irailera arte itxoitea, obrak nola doazen ikusita –denbora eta forman ongi doaz– berriz ere harremanetan jartzeko eta bisitarako data bat zehazteko".

Berrikuntza Digitalaren Poloa eta Adimen Artifizialaren arloko Ikerketarako Zentroa zenbait proiektutan ari dira lanean eta zenbait zerbitzu ari dira ematen, Nafarroako Gobernuak helarazitako komunikazioei esker eta Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak Nafarroako Parlamentuan egindako mintzaldiari esker jakin ahal izan dugunez (Berrikuntza Digitalaren Poloari "Silicon Valley Forala" deitu diote).

Baldin eta langileak normaltasunez ari badira bere eginkizunetan:

1. Parlamentuko batzordeak zergatik ezin du "segurtasunagatik" 2024ko irailaren 5eko bisita egin instalazio horietara?

2. Horrek esan nahi al du IRIS-Nafarroako Berrikuntza Digitaleko Poloko langileak eta Adimen Artifizialaren arloko Ikerketarako Zentroko langileak euren segurtasuna arriskuan jarrita ari direla egiten eguneroko lana?

3. Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak jarraibideren bat eman al dio (ahoz nahiz idatziz) Berrikuntza Digitaleko Poloko koordinatzaileari, bisita egiteko hasieran aurreikusitako eguna geroratu dadin?

Iruñean, 2024ko ekainaren 25ean

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

## 11-24/PES-00329. Galdera, Atarrabian San Andres paper-fabrikatiko usain txarrak nabaritzeari buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Atarrabian San Andres paper-fabrikatiko usain txarrak nabaritzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak idatziz erantzun ditzan:

Ekonomia Zirkularraren eta Klima Aldaketaren Zerbitzuko zuzendariaren apirilaren 28ko 117E/2022 Ebazpenaren bidez, aldaketa nabarmena egin da Solidus Solutions San Andrés SL enpresaren titulartasuneko enbalajeetarako kartoia egiten duen fabrikaren instalazioan (Atarrabia). Aldaketaren xedea da hondakin ur industrialen tratamendu berri bat ezartzeko proiektua gauzatzea.

Baimen horretan baitan, aldatu egiten da Atarrabia kalearen eskuinaldeko eraikin, esparru, instalazio eta ekipo nagusien taula (Ingurumen Baimenaren I. eranskina), eta industria-isuriko tratamenduko bat jasotzen da (tratamendu biologikoa, 1. eta 2. erreaktoreak).

Hori abian jarri denetik, Atarrabiako Udalean kexa ugari aurkeztu dituzte bizilagunek, enpresa

horretatik lehendik ere heldu ohi zen kiratsa baino are handiagoa heltzen ari baita orain.

Ebazpen horretan, zenbait aldaketa aipatzen dira (hobekuntza tekniko erabilgarriak) ingurumen-baimen integratuaren II. eranskineko 4. apartatuan, hondakin-uren sistematik heldu diren osagai usaintsuen isuriak ekiditeko eta murriztekoak.

Hori dena ikusita, honako hau galdetu nahi dut:

1. Enbalajeetarako kartoia egiten duen Atarrabiako fabrikaren titularrak aurkeztu al du erantzukizunpeko adierazpena, ingurumen-baimen integratuaren aldaketaren xede den hondakin ur industrialen tratamendurako instalazioa abian jartzeko? Noiztik dago martxan arazketa-instalazio hori?

2. Departamentuan jaso al dute edo erregistratu al da bizilagunen kexarik Atarrabiako Solidus Solutions San Andrés SL enpresaren instalazioetatik heldu den kiratsa dela-eta? Zenbat? Zer egunetan?

3. Departamentuak zer kontrol-mekanismo dauka instalazio horren ingurumen-baimen integratua jasotakoa betearazteko eta, hartara, usain desatsegin horiek behin eta berriro gertatzea ekiditeko?

4. Departamentuak identifikatu al du usain horiek nondik heldu diren? Ingurumen-baimen integratuko hobekuntza tekniko erabilgarrien artean jasotzen ez diren teknikak erabiltzetik heldu al dira?

5. Departamentuko teknikariak bisitan joan al dira instalazioetara, egiaztatzeke ea bizilagunen kexak egiazkoak diren eta usain horien jatorria zehazteko? Noiz eginen da ikuskapen hori?

Iruñean, 2024ko ekainaren 26an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

**11-24/PES-00330. Galdera, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluari buruzkoa***MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako galdera, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko lehendakariari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gazteriaren Kontseiluko Batzorde Iraunkorreko kide guztiek batera dimititu baitute eta gazteen eta erakundeen arteko zubi-lana galdu baita, Nafarroako Gobernuak zer egingen du sakonki aztertzeko zer gertatu den erakunde horri eman zaizkion eta egoera hau eragin duten funts publikoekin? Eta, bestalde, zer egingen du gazte-kiko zubi-lan hori berreskuratzeko?

Iruñean, 2024ko ekainaren 25ean

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

**11-24/PES-00331. Galdera, Autonomia Pertsonala Sustatzeko Zerbitzuaren finantzaketari buruzko aurreikuspeni eta epeei buruzkoa***ISABEL ARAMBURU BERGUA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Aramburu Bergua andreak egindako galdera, Autonomia Pertsonala Sustatzeko Zerbitzuaren finantzaketari buruzko aurreikuspeni eta epeei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Isabel Aramburu Bergua andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu kontseilari Carmen Maeztu Villafranca andreaki, idatziz erantzun diezaion:

Honako hau jakin nahi dugu "Autonomia pertsonala sustatzeko eta mendekotasuna prebenitzeko zerbitzuak" izenarekin Gizarte Zerbitzu Orokorren Zorroan jasotzen den prestazioa dela-eta:

Finantzaketari buruzko zer aurreikuspen egiten du departamentuak zerbitzu horien inguruan, kontratuei, itunei edo dirulaguntzei dagokienez, eta balizko finantzaketa hori egiteko epeen inguruan?

Iruñean, 2024ko ekainaren 28an

Foru parlamentaria: Isabel Aramburu Bergua

## 11-24/PES-00332. Galdera, Alaitz BHIIn batxilergo-lerro bat kentzeari buruzkoa

### ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, Alaitz BHIIn batxilergo-lerro bat kentzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiarrek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean,

honako galdera hau egiten dio Hezkuntza Departamentuari, idatziz erantzun dezan:

Alaitz BHIko hezkuntza-erkidegoaren bidez jakin izan dugu Hezkuntza Departamentuak Zientzia eta Teknologia eta Giza eta Gizarte Zientzietako lerro bat kendu nahi duela 2024-2025 ikasturtean.

Aurrematrikulazioaren garaian, zenbat ikaslek hautatu zuten lehenbiziko aukeran 1. mailako Zientzia eta Teknologia eta Giza eta Gizarte Zientzietako modalitatea? Zenbat ziren Alaitz institutuko ikasleak eta zenbat beste ikastetxe batekoak? Zenbat ziren Jaso ikastolako ikasleak?

Lehen aukeran Alaitz hautatu zuten ikasleen artetik, zenbati eman zaie aukera Alaitz institutuan matrikulatzeko? Zer ikastetxetan matrikulatu dira azkenik beste ikasleak?

Iruñean, 2024ko uztailaren 1ean

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar



## 11-24/PES-00333. Galdera, Mugairin Elizondo Lanbide Eskola berria eraikitzeko obraren lizitazioari buruzkoa

### ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, Mugairin Elizondo Lanbide Eskola berria eraikitzeko obraren lizitazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiarrek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, ahoz erantzun dezan:

Hezkuntza Departamentuak Mugairin Elizondo Lanbide Eskola berria eraikitzeko obra lizitatu zuen, baina esleitu gabe geratu zen.

Lizitazio berriari buruzko xehetasunak eskatzen ditut: argitalpen-data, epeak eta baldintzak.

Iruñean, 2024ko uztailaren 1ean

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

## 11-24/PES-00334. Galdera, Etxabakoizko Nuestra Señora de Roncesvalles haur-eskolan 2024-2025 ikasturterako izandako matrikulazioei buruzkoa

### ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, Etxabakoizko Nuestra Señora de Roncesvalles haur-eskolan 2024-2025 ikasturterako izandako matrikulazioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiarrek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun ditzan:

Zenbat haur matrikulatu dira Etxabakoizko Nuestra Señora de Roncesvalles haur-eskolan 2024-2025 ikasturterako? Zein adinetakoak dira? Non daude errolatuta haur horiek?

Iruñean, 2024ko uztailaren 1ean

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

## 11-24/PES-00335. Galdera, 2024-2025 ikasturtetik aurrera Ezpeleta Jauregia erabiltzeari buruzkoa

### ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, 2024-2025 ikasturtetik aurrera Ezpeleta Jauregia erabiltzeari buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko parlamentari Eneka Maiz Ulaiarrek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun ditzan:

Orain arte, Ezpeleta Jauregian egon da Hezitzaileen Eskola, baina Hezkuntza Departamentuak iragarri du 2024-2025 ikasturtean Víctor Pradera ikastetxean egonen dela, Zaragoza etorbidean.

Zertarako erabiliko da, zehazki, Ezpeleta Jauregia 2024-2025 ikasturtetik aurrera?

Iruñean, 2024ko uztailaren 1ean

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

## 11-24/PES-00336. Galdera, Aibarko haur-eskolarako aurrematrikulazioei buruzkoa

### ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, Aibarko haur-eskolarako aurrematrikulazioei buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko parlamentari Eneka Maiz Ulaiarrek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egiten dio Hezkuntza Departamentuari, idatziz erantzun dezan:

Aibarko hezkuntza-erkidegoaren bidez jakin dugu zer arazo dagoen haur-eskola berria irekitzeko, nahiz eta bete betetzen diren ezarrita dauden betekizunak eta 10 bat haur dauden aurrematrikulatuta.

Zenbat haur zeuden aurrematrikulatuta Aibarko haur-eskolan eta zer hizkuntza-eredutan egoitea eskatu zuten? Azkenik, non eta zer hizkuntza-eredutan matrikulatu dira haur horiek?

Iruñean, 2024ko uztailaren 1ean

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

## 11-24/PES-00337. Galdera, familiei lana eta familia bateragarri egitearekin laguntzeko neurriei eta haur-pobreziaren aurkako borrokari buruzkoa

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, familiei lana eta familia bateragarri egitearekin laguntzeko neurriei eta haur-pobreziaren aurkako borrokari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zer neurri jarriko ditu abian Nafarroako Gobernuak familiei kontziliazioaren eta haur-pobreziaren aurkako borrokaren arloan laguntze aldera, Gobernu zentralak berriki onetsi dituen eta Nafarroak ildo horretan jasoko ez dituen laguntzak konpentsatzeko?

Iruñean, 2024ko abuztuaren 3an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

## 11-24/PES-00338. Galdera, joko-enpresei buruzkoa

ARANTZAZU IZURDIAGA OSINAGA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Arantzazu Izurdiaga Osinaga andreak egindako galdera, joko-enpresei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

gak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Joko eta Apustuen Erregistroan zenbat joko-enpresa daude inskribatuta jokoak edo apustuak antolatzeko eta ustiatzeko gaitzen duten tituluarekin?

Azken bost urteotan, zer enpresa fisikorik edo juridikorik eskatu dute gaikuntza-tituluak berritzea, iraungitzea edo aldatzea?

Zer zentzutan ebatzi da eskatutako gaikuntza-tituluak berritzea, iraungitzea edo aldatzeko eskaera bakoitza?

Iruñean, 2024ko uztailaren 16an

Foru parlamentaria: Arantxa Izurdiaga Osinaga

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Arantxa Izurdiaga Osinaga

## 11-24/PES-00339. Galdera, behar bezala frogaturiko hiru komunikazio-ahaleginak betetzen direla bermatzeko neurriei buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, behar bezala frogaturiko hiru komunikazio-ahaleginak betetzen direla bermatzeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Osasun Laguntza Espezializatuko Itxaronaldien Bermeei buruzko uztailaren 2ko 14/2008 Foru Legea garatzeko Erregelamendua onesten duen apirilaren 26ko 21/2010 Foru Dekretuaren 10. artikulua 4. apartatuaren arabera, "bertartzeko eguna jakinarazteko hiru saio, behar bezala egiaztatzen direnak" egin behar dira. Zer neurri hartzen du Osasun Departamentuak hori betetzen dela bermatzeko?

Iruñean, 2024ko uztailaren 22an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

## 11-24/PES-00341. Galdera, Vianako Mondelez enpresarentzako laguntza ekonomikoei eta onura fiskalei buruzkoa

LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak egindako galdera, Vianako Mondelez enpresarentzako laguntza ekonomikoei eta onura fiskalei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

– Zer laguntza edo dirulaguntza jaso ditu azken hamar urteetan Vianan kokatuta dagoen Mondelez enpresak (Mondelez International multinazionalaren faktoria) egiturazko edo teknologia-ko inbertsioengatik, energia berriztagarrien bidezko sistemak ezartzeagatik, enplegua sortzeagatik, prestakuntzengatik, prestakuntza-sistemarengatik, prebentzio-sistemengatik, I+G+b-a laguntzeagatik, berdintasun-plana egin edo garatzeagatik edo beste edozein kontzepturengatik?

– Zer zerga-onura (I+G+B jarduerengatiko kenkariak, inbertitzeagatiko kenkaria, bestelako kenkariak...) eta zer zenbatekotakoak aplikatu ditu Vianako Mondelez enpresak, azken hamar urteotan, sozietateen gaineko zergaren aitorpenetan?

Iruñean, 2024ko uztailaren 23an

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

## 11-24/PES-00343. Galdera, Antzingo eskolari buruzkoa

### ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, Antzingo eskolari buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa taldeko foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, Hezkuntza Departamentuari eskatzen dio Osoko Bilkuran honako galdera hauei idatziz erantzun diezaien:

Antzingo Lokitz eskola txiki eta zaharkitu geratu da, eta eskola berria egiteko beharra dago.

Zenbat haur daude matrikulatuta Antzingo Lokitz Eskolan? Zein mailatakoak dira? Nongoak dira haurrak? Noizko aurreikusten du Hezkuntza Departamentuak eskola berria egitea?

Iruñean, 2024ko uztailaren 23an

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

## 11-24/PES-00344. Galdera, interkontsulta baten ondotiko hitzordu presentzialeari buruzkoa

### LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, interkontsulta baten ondotiko hitzordu presentzialeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andre-

ak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Itxaron-zerrendak direla-eta, zer protokolori jarraitu behar zaio espezialista batekin hitzordu presentzial bat izateko eskabideen kasuan (oina-

rrizko osasun-laguntzatik egindakoak), espezialista horrekin aurretiaz zerbitzu arteko kontsulta egin ondoren?

Iruñean, 2024ko uztailaren 26an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

---

## **11-24/PES-00345. Galdera, Nafarroako Gobernuak Bidean ente instrumental deklaratzeari buruz 2023ko azaroaren 6ko Administrazio Kontseiluan aipatu ziren data aurreikusiei buruzkoa**

*CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Nafarroako Gobernuak Bidean ente instrumental deklaratzeari buruz 2023ko azaroaren 6ko Administrazio Kontseiluan aipatu ziren data aurreikusiei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

García andreak zer data aurreikusi zuen 2023ko azaroaren 6ko Administrazio Kontseiluan Nafarroako Gobernuak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren entitate instrumental gisa onar dezan Bidean?

Data horiek mantentzen al ditu Nafarroako Gobernuak? Mantentzen ez baditu, zergatik aldatu da aurreikuspena?

Zer egoera administratibo eta politikotan dago onarpen hori, eta zer urrats egitea falta da?

Iruñean, 2024ko uztailaren 29an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

## 11-24/PES-00346. Galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitaletik kanpo eginiko analisiei buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitaletik kanpo eginiko analisiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Lehenago Tuterako Reina Sofía Ospitaleko Análisi Kliniko, Anatomía Patológiko, Mikrobiología eta Hematologiako laborategietan egiten ziren analisisietatik zein egiten dira gure erkidegoko beste zentro pribatu batzuetan edo sare publikoko beste zentro batzuetan? Zenbat dira, eta zergatik ez dira egiten Tuterako Reina Sofía Ospitalean?

Iruñean, 2024ko abuztuaren 6an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

## 11-24/PES-00347. Galdera, bakarrik dauden adingabe atzerritarrei buruzkoa

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, bakarrik dauden adingabe atzerritarrei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Bakarrik dauden zenbat adingabe atzerritar iritsi dira eta iritsiko dira behin betiko Nafarroara? Zer zentrok hartuko dituzte horiek? Bakarrik dauden zenbat adingabe atzerritar hartuko ditu zentro bakoitzak?

Iruñean, 2024ko abuztuaren 6an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

## 11-24/PES-00348. Galdera, Nafarroako egoitzen hitzarmenaren egoerari buruzkoa

*RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, Nafarroako egoitzen hitzarmenaren egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zein da Nafarroako egoitzen hitzarmenaren egoera?

Iruñean, 2024ko abuztuaren 9an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

## 11-24/PES-00349. Galdera, Nafarroan desgaitasunaren alorrean dauden itxaron-zerrendei buruzkoa

*RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, Nafarroan desgaitasunaren alorrean dauden itxaron-zerrendei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Hobetu al dira desgaitasunaren itxaron-zerrendak Nafarroan? Zein da desgaitasuna baloratzeko batez besteko itxaronaldia 2024ko abuztuan?

Iruñean, 2024ko abuztuaren 9an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces



## 11-24/PES-00350. Galdera, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren finantza-egoerari buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren finantza-egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren

babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren finantza-egoerari buruz:

1. Zer datu ditu Nafarroako Gobernuak Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren ez-ordaintzei buruz?

2. Zein da Nafarroako Gazteriaren Kontseiluak Nafarroako Gazteriaren Institutuarekin duen zorra?

3. Zein da Nafarroako Gazteriaren Kontseiluak Nafarroako Foru Ogasunarekin duen zorra?

4. Zein da Nafarroako Gazteriaren Kontseiluak Gizarte Segurantzarekin duen zorra?

5. Zeintzuk dira Nafarroako Gazteriaren Kontseiluak beste pertsona, entitate, enpresa eta abarrek dituen ordaindu gabeko zenbatekoak?

Iruñean, 2024ko abuztuaren 12an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

## 11-24/PES-00351. Galdera, Europako NG funtsekin (SEM) finantzaturiko zenbait jarduketa bertan behera utzi izanari buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, Europako NG funtsekin (SEM) finantzaturiko zenbait jarduketa bertan behera utzi izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen dena-

ren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

1. Europako SEM funtsen bidez finantzaturako honako jarduketa hauek kendu dira Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentutik: ID031, 2. proiektua: Datuetan oinarritu eta bideratutako Justizia / ID034, 7. proiektua: Testualizazioa / ID036, 9. proiektua: Erregistro Zibila. Zergatik?

2. Zer egin da gaur arte, kendu diren 3 jarduketa horietako bakoitzean?

3. Zer egoeratan geratzen dira egindako ekintzak?

4. Beste jarduketa batzuek xurgatu al dituzte kendutako jarduketak? Hala bada, zehaztu zeinetan sartu diren.

Iruñean, 2024ko abuztuaren 12an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

## 11-24/PES-00352. Galdera, babesgabetasun-egoeran zegoen familia batek kalean lo egin beharra ekiditeko ekintzei buruzkoa

*RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, babesgabetasun-egoeran zegoen familia batek kalean lo egin beharra ekiditeko ekintzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

*Diario de Navarra* egunkarian abuztuaren 11n argitaratu zen albistea ikusita *–Policías forales pagan de madrugada un hotel a una familia a una desamparo–*, zer egin du Eskubide Sozialetako Departamentuak adingabeak dituen familia horrek kalean lo egitea saihesteko?

Iruñean, 2024ko abuztuaren 14an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

## 11-24/PES-00353. Galdera, Foruzaingoko Informazio Dibisioaren txostenetan delituak polizia-kidegoaren arabera banatzeari buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Foruzaingoko Informazio Dibisioaren txostenetan delituak polizia-kidegoaren arabera banatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakizkion:

Foruzaingoko Informazio Dibisioak egindako Nafarroako delinkuentziaren ebaluazio estrategikoaren txostenetan, 2020. eta 2021. urteei buruzkoetan, "2.2. Delitu estrategikoak polizia-kidegoa" izeneko atal bat dago, zeinetan polizia-kidegoen arabera banaketaren informazioa jasotzen baita (Foruzaingoa, Guardia Zibila, Polizia Kidego Nazionala eta Iruñeko Udaltzaingoa).

2022. eta 2023. urteei buruzko txostenetan, desagertu egin da atal hori, eta ez dago informaziozirik Nafarroan ezagutu diren eta polizia-kidego desberdinek Polizia Informazioko Sistemari (PIS) erregistratu dituzten delitu-egitateen polizia-kidegoen arabera banaketari buruz.

Honako galdera hauek egiten ditugu:

1. Zergatik kendu du Informazio Dibisioak delitu-egitateek haien berri izan zuen polizia-kidegoaren arabera izan zuten banaketari buruzko informazioa jasotzen zuen atala Nafarroako delinkuentziaren ebaluazio estrategikoari buruz 2021az geroztik eman diren txostenetan?

2. Barneko Departamentuari ez al zaio garrantzitsu iruditzen informazio hori argitaratzea, non azaltzen baita Nafarroan jarduten duen polizia-kidego bakoitzak PISen erregistratutako delitu-egitateen zer ehuneko erregistratu duen?

3. Nolanahi ere, Foruzaingoko Informazio Dibisioaren esku dagoen informazioaren arabera, zer banaketa izan dute 2022ko ekitaldian ezagututako delitu-egitateek Nafarroan jarduten duten polizia-kidegok?

4. Eta zein izan da 2023ko banaketa?

5. Foruzaingoko Informazio Dibisioak ba al du asmorik 2024ko ekitaldiko Nafarroako delinkuentziaren ebaluazio estrategikoaren txostenean polizia-kidegoen arabera banaketari buruzko informazioa sartzeko berriz?

Iruñean, 2024ko abuztuaren 21ean.

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## 11-24/PES-00354. Galdera, funts publikoekin finantzaturiko ikastetxeetan eduki politikodun pankartak kentzeko protokoloari buruzkoa

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, funts publikoekin finantzaturiko ikastetxeetan eduki politikodun pankartak kentzeko protokoloari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Alderdi Popularraren talde parlamentarioko eledun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Hezkuntzako kontseilari, idatziz erantzun dezan:

Zer protokolori jarraitzen dio Nafarroako Gobernuak funts publikoekin finantzaturiko ikastetxeetan eduki politikoa duten pankartak kentzeko?

Iruñean, 2024ko abuztuaren 20an.

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

## 11-24/PES-00355. Galdera, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko 5/2018 Foru Legea, maiatzaren 17koa, betetze aldera Nafarroako Gobernuak egin dituen urratsei buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko 5/2018 Foru Legea, maiatzaren 17koa, betetze aldera Nafarroako Gobernuak egin dituen urratsei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioko atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

– Zer urrats egin ditu Nafarroako Gobernuak Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legea betetze aldera, interes-taldearen erregistro publikoari dagokionez?

– Zer urrats daude egiteko, eta zer epe aurreikusten dira?

– Nola gauzatu nahi da koordinazioa, ez dadin bikoizketarik gerta Jardunbide Egokien aldeko eta Ustelkeriaren kontrako Bulegoa sortzeko maia-

tzaren 17ko 7/2018 Foru Legearen lehenengo xedapen iragankorrean xedatutakoarekin?

Iruñean, 2024ko abuztuaren 26an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

---

## **11-24/PES-00356. Galdera, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren egoerari buruzkoa**

*MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako galdera, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gazteriaren Kontseilua 1986an sortu zen, Nafarroako Foru Komunitatearen garapenean gazteen parte-hartzea sustatzeko eta gazteen eskubideak zaintzeko. Gazteak gizartean ordezkatzeko eta parte hartzeko organo nagusia da.

2023ko abenduaren 19an, Kontuen Ganberak erakundearen 2019-2022 aldiko kontuei buruzko txosten bat argitaratu zuen, eta bertan ohartarazi zuen Kontseiluaren jarraipena «arriskuan» zegoela «gastuei aurre egiteko ezintasunagatik».

Joan den ekainean, karguak hartu eta sei hilabetera soilik, Gazteriaren Kontseiluko lehendakariak eta zuzendaritzak dimititu zuten, «erakundearen egoera ia jasanezina» zela eta.

Nafarroako Gobernuak, azken dimisio horien berri izan duenetik, zer jarduera egin ditu, bakoitza datekin, solaskideekin eta edukiarekin zehaztuta, egoeraren berri izateko eta berriro funtzionamendua bultzatzeko?

Iruñean, 2024ko abuztuaren 23an.

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

## **11-24/PES-00357. Galdera, errentako etxebizitza publikoko parkeko etxebizitza bat emateko batez besteko itxarote-denborari buruzkoa**

*MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako galdera, errentako etxebizitza publikoko parkeko etxebizitza bat emateko batez besteko itxarote-denborari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zenbat denbora itxaron behar da, batez beste, alokairuko parke publikoko etxebizitza bat emateko?

Iruñean, 2024ko abuztuaren 25ean

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

## **11-24/PES-00358. Galdera, Nafarroan etxebizitza babestu bat emateko itxaron behar den batez besteko denborari buruzkoa**

*MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako galdera, Nafarroan etxebizitza babestu bat emateko itxaron behar den batez besteko denborari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zenbat denbora itxaron behar da, batez beste, etxebizitza babestu bat emateko?

Iruñean, 2024ko abuztuaren 25ean

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

## 11-24/PES-00359. Galdera, osasun arloko langileen lanbide-karreraren sistema ezartzen duen foru legearen zirriborroari buruzkoa

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak egindako galdera, osasun arloko langileen lanbide-karreraren sistema ezartzen duen foru legearen zirriborroari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako

ko Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nola uztartuko da Osasun Departamentuari eta bere erakunde autonomoi atxikitako osasun arloko langileen karrera profesionaleko sistema ezartzen duen foru legearen zirriborroa, fakultatibo espezialistak, beste osasun fakultatibo eta diplomatu batzuk izan ezik, etorkizuneko karrera profesionalarekin, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta haren erakunde autonomotako langile guztientzat?

Bereziki jakin nahi da karrera hori nola uztartuko den Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiaren aurreikuspenarekin, hau da, jardunaren ebaluazioa karrera profesionalaren parte izatea.

Iruñean, 2024ko abuztuaren 26an.

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

## 11-24/PES-00360. Galdera, erosketa- eta lizitazio-teknikariaren lanposturako kontratazio mugagaberako tasa berariazko bat onesteari buruzkoa

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak egindako galdera, erosketa- eta lizitazio-teknikariaren lanposturako kontratazio mugagaberako tasa berariazko bat onesteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

1. Zergatik eskatu dio CPENk baimena Nafarroako Gobernuari erosketa- eta lizitazio-teknikari lanposturako langileen kontratazio mugagaberako tasa espezifiko bat onartzeko?

2. Zergatik lanpostu zehatz horretarako eta ez beste baterako?

3. Egin al da baimenak aipatzen duen kontratazio mugagabea?

4. Egin bada, lanpostu hori aldi baterako betetzen ari zen pertsonak bete al du edo beste batek?

5. Zein zen edo da CPENren behin-behinekotasun tasa, galderan aipatzen den kontratazio mugagabearen aurretik?

6. Kontratazio mugagabe hori egin bada, kontratazio horren ondoren CPENren behin-behinekotasun tasa ere eskatzen da.

Iruñean, 2024ko abuztuaren 27an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

## **11-24/PES-00361. Galdera, 2024ko maiatzaren 24an egin zen Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Batzordean Lucero jaunak jaulki zituen hitzei buruzkoa**

*CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, 2024ko maiatzaren 24an egin zen Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Batzordean Lucero jaunak jaulki zituen hitzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Fanlo kontseilaria bat al dator PSNko legebiltzarkide Lucero jaunak, 2024ko maiatzaren 24an egindako Unibertsitate, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitalaren Batzordean, Nair Centerren berritasunen berri emateko esan zituen hitzekin? Bertan, Bustince jaunari dagokionez, honako hau adierazi zuen:

«Bustince jaunari dagokionez, nik uste dut denok ezagutzen ditugula prentsan Saudi Arabiako Unibertsitateari buruz agertu ziren baieztapeak. Nik uste dut, ildo horretan, Nafarroako Unibertsitate Publikoak ikerketa bat ireki duela, eta itxoin behar dela Nafarroako Unibertsitate Publikoak zentzu horretan zer esan behar duen jakin arte. Nik uste dut ez dagoela inongo erakunderen gaineratik dagoen pertsonarik, nire ustez askoz ere garrantzitsuagoa da NAIR Center horren prestigioa eta zintzotasuna, nolabait esatearren, gaineratik dauden pertsonak baino, eta UPNAren prozesua errespetatzea, eta UPNAk berak erabakitzen duenaren arabera, nire ustez... Baina, beraz, eskerrak eman nahi dizkiot, noski, kontseilariak aipatu duen eta egin duen lanagatik, beste gune batzuetan ere egingo baitu lan».

Iruñean, 2024ko abuztuaren 27an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero



## 11-24/PES-00362. Galdera, errentako etxebizitzak sustatzeko sozietate berri bat eratzeko prozesuari buruzkoa

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, errentako etxebizitzak sustatzeko sozietate berri bat eratzeko prozesuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendiak, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuari, idatziz erantzun dezan:

Aurtengo apirilean, Begoña Alfaro kontseilariak iragarri zuen sozietate publiko-pribatu berri bat sortuko zela, kapital mistoko enpresa bat, Nafarroako Foru Komunitatean alokairu eskuragarriko etxebizitzak sustatzeko.

Horregatik guztiagatik, honako galdera hauek egiten ditut, idatziz erantzuteko:

Zein egoeratan dago sozietate publiko-pribatu hori sortzeko prozesua eta zer aurreikuspen ditu Nafarroako Gobernuak horri buruz, denborari eta prozedurari dagokienez?

Iruñean, 2024ko abuztuaren 28an

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

## 11-24/PES-00363. Galdera, etxebizitzak zaharberritzeko bideratuta dauden dirulaguntzetako Europako funtsei buruzkoa

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, etxebizitzak zaharberritzeko bideratuta dauden dirulaguntzetako Europako funtsei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendiak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuko Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

Aurtengo ekainean, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuak Nafarroako etxebizitzari buruzko 2023ko urteko txostena argitaratu du, baita 2024ko lehen hilabeteetako aurrerapena ere.

Txosten horretan, beste datu askoren artean, adierazten da 2023an Nafarroako Gobernuak guztira 43.842.210 euro bideratu dituela

zaharberritzerako dirulaguntzetara, eta 2024ko lehen bost hilabeteetan zaharberritzerako dirulaguntzetarako aurrekontua 28.357.527,53 eurokoa izan dela.

Horregatik guztiagatik, honako galdera hauek egiten ditut, idatziz erantzuteko:

2023ko ekitaldian eta 2024ko lehen bost hila-beteetan etxebizitzak zaharberritzeko dirulagun-

tzetara bideratutako kopuruetatik (goian azalduta-ko zenbatekoak), zenbat diru dator Europako funtsetatik?

Europako funtsetatik zenbat diru jasotzea aurreikusten da 2024an eta 2025 eta 2026an?

Iruñean, 2024ko abuztuaren 28an

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

---

## 11-24/PES-00364. Galdera, "Nafarroako gazteriari buruzko azterlan monografikoa" delakorako kontratuaren gainekoa

*ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, "Nafarroako gazteriari buruzko azterlan monografikoa" delakorako kontratuaren gainekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

1. Zergatik egin da atzera Nafarroako Gazteriaren Institutuak lizitatu behar zuen Nafarroako gazteriari buruzko azterlan monografikorako kontratuan?

2. Lizitazio berri bat argitaratuko al da?

Iruñean, 2024ko abuztuaren 29an.

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

## 11-24/PES-00365. Galdera, "Estudios Melitón" enpresarekiko epaiaren betearazpenari buruzkoa

*JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egindako galdera, "Estudios Melitón" enpresarekiko epaiaren betearazpenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioko Juan Luis Sánchez de Muniáin jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak edo Nasuvinsak eskatu al dute 565.205 euro ordaintzeko epaia betearaz dezaten, Estudios Melitón merkataritza-sozietateak edo haren administratzaileek, epaiak haiek kondenatu baitzituen?

Lortu al du Nafarroako Gobernuak ordaindu gabeko eta epai irmoz zor zaion kopururen bat, aipatutako merkataritza-sozietateari estudioak eraiki eta errentan emateko prozesuaren ondoren?

Zer prozedura eta ekintza abiarazi dute Nafarroako Gobernuak edo Nasuvinsak, ordaindu gabeko diru-kopuruak berreskuratzeko edo zinema-estudioak eraikitzeagatik 1,2 milioi euroko kalte-ordaina emateko?

Zertarako aurreikusi duzu erabiltzea inoiz erabili ez diren zinema-estudioetako ekipamendu guztia (platoak, aldagelak, makillaje-aretoak eta bestelako instalazioak)?

Zer erantzukizun eskatu nahi dizkiezu huts egindako azpiegitura honen kudeatzaile politikoei, zuhurtziarik ezagatik?

Iruñean, 2024ko abuztuaren 29an.

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

